

## Ikastetxeetan eskuhartze eredua

[eskuhartze ereduen eskema](#) 

[eskuhartzeen tipologia](#) 

[hobekuntza planetan oinarritutako aholkularitza](#) 

### Erreferentziako Aholkularitzak

Berritzeguneetako aholkulariek, ikastetxeekin elkar lan egiten dutenean, amankomuneko helburuak gogoan izan behar dituzte eta antolakuntza eta eskuhartze eredu bat jarraitu, haien arteko koordinazioa erraz dadin eta ikastetxeetan egiten diren jarduera ezberdinen koherentzia garatuta ere egon dadin. Eskuhartze ereduak dagokienez, eskuhartzearen beraren oinarritzko eta lehentasuneko xedeagatik eta aholkulariaren egoera administratiboagatik bereiz daitezke.

Eskuhartzearen xedea eta helburuak kontuan hartuta, aukera anitza dago. Alde batetik Berritzeguneetako aholkulariek eskolak planteatzen dituen gaiak edota arazoei erantzuten saiatzea baino ez lukete egingo eta era horretan aholkularitza "*aholkularitza hutsa*" baino ez zen izango, unean uneko eskuhartze bihurtuta, eskakizun zehatzak jaso ondoren. Beste aldetik eskuhartzea baliteke ikastetxearekiko elkarlana izan, hezkuntzaren kalitatea eta bertan garatzen diren prozesuak hobetu nahian. Ikuspuntu honetatik nahigarriagozat jotzen da ikastetxearekin partehartze eta konpromiso handiagoak izatea. Beraz, Berritzeguneen asmoa *xede prebentiboa* sustatzea da, eskuhartu nahi ez baitugu eskakizuna jasotzen dugunean soilik. Aitzitik aholkulariak honako jarduera hauek egin beharko zuen: bere burua ikastetxeko kidegatzat jo; beharrak detektatzen elkarlanean ari izan; egokia balitz, proposamenak egin eta zenbait ataletan eta esparrutan irakasleekin batera arduratu. Edozein kasutan ere, irakasleekin eta ikastetxeekin elkar lan egiteak horien berehalako edo larrialdiko eskakizunak eta arazoak ebaztearen ondorioa ere badakar.

Egoera administratiboari dagokionez, laguntza-zerbitzugunea ikastetxe baten sistemaren "*barruan*" edo horretatik "*kanpo*" koka daiteke, lehenengo kasuan prozesu guztiak ikuskatzen; bigarrenean, aldiz, kanpoko aholkularitzaren eginkizuna burutzen. Zentzu horretan *kanpo aholkularitzak* modu zailean ezarriko lituzke arduraren banatze-harremanak eta *barne aholkularitzak*, aldiz, jarrera ez neutrala har lezake.

Proposatzen den eskuhartze ereduaren kokapena ez da guztiz "*kanpokoa*" izango, ez eta guztiz "*barnekoa*" ere, honek guztiak ekar ditzakeen aldeko zein kontrako alderdien ondorioak kontuan harturik. Alde batetik "*barruan izateak*" erakundearen zein egoeraren ezagupena ematen du; eta beste aldetik bereizitako sistema izateak beharrezko urruntasuna eta objetibotasuna errazten ditu, azterketak edota balorazioak egiteko momentuan nolabait inpartzialagoak izan ahal gaituzten.

Eskuhartzea ikastetxe batean hasten dugunean, ekin behar diogun lehenengo ataza sistema horretan sartzea da. Helburu hori izanda, Berritzegune hauek erreferentzia aholkularitzak ezarri dituzte eta ikastetxeen ahalik eta banaketarik orekatuena eta kide bakoitzaren lanbide-profilari egokituena egin dute. Lehen fasea elkar ezagutzekoa da, erreferentzia aholkulariak ikastetxeko zuzendariari elkarlan egiteko joera adieraz diezaiola, beti ere ikastetxearen erritmoa eta dinamika errespetatuz. Bigarren fasean ikastetxeko ateak Berritzeguneetako beste aholkularitzei -etapakoei, arlokoei eta programakoei- irekitzen zaizkie, berariazko eskuhartzeak burutzeko.

***Arabako lurraldean, salbuespen gutxikin, ikastetxe guztiek erreferentzi bikoitza dute Berritzegunetik: alde batetik hezkuntza premia beriaz dituzten irakasleak arduraren duen aholkularia eta, bestalderetik, erreferentzizko aholkularitza bera. ...***

ME2101e	
Erreb.	Onarpena eta indarrean egoteko data
1	09-09-01

Arabako lurraldean ea ikastetxe guztiek (“bisitagarriak” diren ikastetxeak) Berritzegunean erreferentzi bikotza dute: alde batetik Hezkuntza premia bereziren bat duen ikasleriaz arduratzen den erreferentzi bat eta, bestaldetik, erreferentziako aholkularitza bera. Kudeaketa Sistemaren NM2101 arauan bi aholkularitza hauek betetzen dituzten mota ezberdinak betebeharrak bildu eta zehazten dira.

[erreferentziako aholkularien betebeharrak ikusi \[NM2101\]](#) 

## 2. Barne-koordinazio eredu

Berritzeguneen jarduera zuzena aritzeko eta ikastetxeen beharrei erantzun egokia emateko, ezinbestekotzat jotzen dugu jarduera planaren eta aholkularien eskuhartzeen barne-koordinazioa lortzea. Koordinazio hori bereziki Arabako Berritzeguneetan areagotu beharko da, zeren bien arteko jarduerarako irizpide berberak mantendu nahi baitira. Segidan gure *Antolakuntza eta ikastetxeetan Eskuhartzeen Eredua*<sup>1</sup> era grafikoan aurkeztzen da. Eskema horretan barne koordinazioa eta lan taldeen funtzionamendua bideratzen dituzten ordutarte batzuk moldatu behar izan dira.

Berritzeguneetako zuzendaritza pedagogikoa beraietako Zuzendaritzari dagokio, **Batzorde Pedagogikoaren** eremuan. Klaustroaren antzera, 40/2009 DEKRETUAK (7, 10 eta 11 artikulua) erregulatzen duen elkargoaren organoa da, Zuzendaria, Etapako aholkularietatik bi, IKT zein Hizkuntza Normalkuntza programen aholkularietatik bi eta Hezkuntza Premia berezietako aholkularietatik bat bere osaketan daudelarik. Batzorde Pedagogikoko kideak esandako taldeetan urtero eta norbera bararen taldeak aukeratuak izango dira. Dena den, Arabako Berritzeguneen berezitasunari helduz, beti ere bi klaustroen onarpena zein Hezkuntza Administrazioaren ezagutzaz, Berritzegune biek beraien hurrenez hurreneko Batzorde pedagogikoen bilerak batera egingo dute, Batzorde horiek honela osaturik daudelarik:

- Berritzeguneetako zuzendariak.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako Etapako aholkularietatik esandako Etapa biak ordezkatzeko dituzten bi aholkulari,
- Bigarren Hezkuntzako Etapako aholkularietatik Etapa horretako Socio-Linguistiko teca Zientifiko-Teknologiko eremuak ordezkatzeko dituzten bi aholkulari,
- IKT eta Hizkuntza Normalkuntza Programetako aholkularietatik bi aholkulari,
- H.P.B.-ko aholkularietatik bi aholkulari,
- Idazkari-Dokumentalista bat.
- Kalitatea edota Etengabeko Hobekuntzaren arduraduna<sup>2</sup>

**Batzorde Pedagogikoa,  
urteko hobekuntza  
planen garapena  
sustatzen dituela  
etengabeko  
hobekuntzaren filosofia  
bultzatzearen ardura  
duen organoa da...**

[batzorde pedagogikoaren kideak ikusi \[NM2103\]](#) 

<sup>1</sup> Arabako berritzeguneek eraikinak zein azpiegiturak konpartitzeak batera eta osagarria den eragintzean oinarrituta dagoen eskuhartze eredu bat ezartzerakoan abantaila oso handia dakar.

<sup>2</sup> Arabako Berritzeguneek Kalitate Kudeaketa Sistema (KKS) delakoaren ezartze eta garapena dinamizatu eta bultzatzea helburuak zituen Kalitate komisio bat, Berritzeguneetako langile guztiek bere erabilpena sustatu, Hobekuntza planak garatu eta KKSan prozesu berriak barneratzen zituena. Antolaketaren alorrean sistemaren aplikazioak hainbat urte dituela jada honek gure beharretara egokitzapen oso maila altua dauka eta bere erabilpen betekizunak oso berenganaturik daude aholkulariek beren eguneroko betebeharretan. Gure praktikaren ikuspegi pedagogikoekin askoz ere erlaziozuzen dauden alor berriei heltzeko unea heldu dela uste dugu eta horregatik kalitate arduraduna batzorde pedagogikoan sartzea komenigarritzat jo dugu. Gauzak honela, Batzorde Pedagogikoak lehengo Kalitate batzordearen funtzioak bereganatzen ditu.

Erreb.	Onarpena eta indarrean egoteko data
1	09-09-01

Orokorrean, Koordinazio Batzorde Pedagogikoa astelehenero, 15etatik 17etara bitartean, bildu egingo da. Batzorde honek 40/2009 Dekretuak<sup>3</sup> esleitzen dición funtzioez gain lan talde exberdinen bileretan landuriko ikuspegi guztien bateratze-lanaren ezkenatokia izateaz gain ikastexeen eskaeren biltze eta azterketagune delarik, Berritzeguneen erantzuna diseinatzeko talde guztien iradokizun eta proposamen guztiak baloratuz gero. Era berean, **etengabeko hobekuntza [DC1005]** delakoaren filosofiaren organo bultzatzailea izango da non urteko Hobekuntza planak garatuko diren.

**Etengabeko Hobekuntzaren Arduradunak**, Batzorde Pedagogikoan, hurrengo funtzio haue izango ditu:

- *Aholkularitzek Kudeaketa Sistemarekiko lituzketen iradokizunak zein balizko beharrak bildu: dokumentazioa zein emandako lanabesen egokitzapen eta berriztapenak, etab.*
- Batzorde Pedagogikoaren onarpena duten aldaketen garatze praktikoaren ardura, ekinbide eta konpromezua bereganatzea.
- *Aldaketa zein gehikuntzek eragindako aholkularitzak jakinaren gainean ipini, practican jartzeko aholkularitza eskeiniz.*
- *Prozesuen garapena ikertu eta beraien hobekuntza plan orokorrak proposatu-sustatuz, aholkularitzek proposaturiko beste hobekuntza plan zehatzagoak kudeatu-dinamizatzen dituelarik.*
- *Ezarrita dauden horretan Kudeaketa Sistemaren prozesuen garapenaren ardura hartu.*
- *Adierazleen aldiroko kontrolaz eta FTP-en (Errepositorio orokorra barne) mantenimenduz arduratu.*
- *Egon litezkeen Ez adostasunen arduradunei laguntza eman.*
- *Adierazleen joateari buruzko txostenak egin.*
- *Kudeaketa Sistemaren prozesu berreen gehitzea, beharrezkoak litezkeen zirriborroen egitearen arduratzen delarik*

Klaustroak eta bilera orokorrak normalean ostiraleetan egingo dira, 9,00etatik 10etara. Klaustroei dagokienez, Berritzeguneek (A01 eta A02) bananduta egingo dituzte, bakoitzak bereak, eta horietara LPZan aipatzen diren kideak eta Berritzeguneetara Ordezkaritzak berariaz igorritako edota antolamenduagatik kokatutako langileak soilik bertaratuko dira. Dagokion Aginduak arautzen dituen klaustroko bilerak behin burutu ez gero, ikasturtean zehar bilera orokorrak eta irekiagoak egin ahal izango dira, eraginkorrako gertatzen baitira. Bilera horietan jorratuko diren gaien arabera, Zuzendaritzek dagozkien kideei zabalduko diete deialdia.



<sup>3</sup> ↘ Esleiturik dituen funtzioen betetzean Zuzendaritzari laguntza eman, ↘ Hezkuntza Berritzatze Zuzendaritzak markaturikoa eta ikastexeen formakuntza beharren eta eskaeren diagnosis kontuan harturik Urteko Plana Portu, ↘ Artero eta ikasturte hasieran zonaldeko ikastetxei Urteko Plana komunikatu, . ↘ Barne zein kanpoko ebaluazio baten oinarritzat jo litekeen Berritzegunearen eskuhartzearen ebaluaziorako jarraibide desberdin abiatu, ↘ Ikasturtean zehar ikastexeei aitorturiko eskaera zehatzei aurre egiteko soluzioak planteiatu eta bideratu, Onartutako aurrekontuaren araberrako gastuak ikuskatu.



Erreb.	Onarpena eta indarrean egoteko data
1	09-09-01

Arabako Berritzeguneek hainbat lan talde dituzte non ikastetxeen eskaerei zein Hezkuntza departamentuak orokorrean eta Berritzatze Zuzendaritzak zehatzagoki ezertzen dituzten lan lerroen garapenak dakartzan beharrei erantzun ahal izateko aholkularitza dsberdinek elkarrekin lan egiten duten. Berritzegune hauen izate organikotik egozten diren lan taldeek etapa edota programaren ikuspegi orokorrak dituzte helburu eta, horregatik, lan esparru horietako aholkularitza guztiei dagozkie. Beste lan talde batzuk espezifikagoak dira eta departamentuak lehenesten dituen kontuetan dute helburu.

Ondoren ikasturte honetarako kontenplutzen diren lan taldeak zehazten dituen arauak aipatzen dira:

- NM2102 araua: lan taldeen antolaketa 
- NM2103 araua: interloktore eta erreferenteak 

Zehatzagoak izan litezkeen beste batzuk baztertu barik, barne lan-taldeek ondoko funtzio hauek izango dituzte:

- *Talde bakoitzari dagozkion gaiei buruzko dokumentuak, curriculum materialak,exenplifikazioak, praktika onak,esperientziak eta abarrekoak bildu, sailkatu eta antolatu; bere lan eremuarekin erlasionaturik dauden gaiei buruzko aholkularitzarekiko proposamen didaktikoak sortu beti ere ekoizturikoa Etengabeko Hobekuntzaren arduraden esku ipiniz honek, era ordenatuan,*
- *Ikastetxeetan egingo diren eskuhartzeen ikertu,diseinatu eta praktikan jarri.*
- *Beren lan alorrekin erlasionaturiko ikuspegiekiko formatu-informatzeko beste aholkularitza butzuetara zuzendutako lan saioak antolatu.*
- *Lan taldeko lankideengan fokatuta, proposaturiko helburuak lortzeko garrantzitsutzat jotzen diren barne zein espezifikoa litezkeen formakuntza proposamenak zuzendaritzari aurkeztea*
- *Ikastetxeei Departamentuak lehenesturiko gaiak zein ikastetxeek aurkezturiko eskaerak garapen eta abordajerako marko orokorrak diseinatu eta aurkeztu, ikuturiko gaiekin erlasionatutako mintegien antolaketa eta kudeaketaz arduratuz.*